


TESTUAREN KOHESIOA HOBETZEKO HIRU BALIABIDE

Testugintzaren esparruan, zer da "kohesioa"?



Testu bat osatzen duten
komunikazio-elementuak
—hitzak, perpausak eta
paragrafoak—
erlazionatzeko modu
esplizitua da.



Kohesiorik gabeko testua perpaus-segida hutsa besterik ez da.

Aldiz, ondo kohesionatutako testu bat barne-egitura argia duen testu-unitatea da: testuaren komunikazio-elementu bakoitza besteekin duen erlazioa kontuan hartuta interpretatzen da.

Kohesioari esker hobeto ulertzen dira bai testuaren informazio nabarmenena, bai xehetasunak.

Kohesio onak ziurtatu egiten du berehalako erantzuna emango diegula galdera hauei:



- Zein da testuan deskribatutako ekintza?
- Zein pertsonak eta objektuk parte hartzen dute ekintza horretan?
- Zer denbora-erreferente hartzen dira kontuan?
- Zer beste ñabardura zehazten dira testuan?
- ...

Izan ere, kohesioak lotura du testuaren komunikazio-elementu bakoitza identifikatzearekin.

Demagun testu honen kohesioa hobetu nahi dugula:

Ekintza baten kontrako errekurtsua jartzen bada, eten ahal izango da.

Begiratu behar da zer-nolako minak eragin ahal zaizkigun guztioi edo beste batzuei, eta kontra egin duenari ere bai, eta zergatia argi adierazi. Min konponezin edo konpongaitzak ekar daitezkeela ikusten bada, ez egiteko agindu ahal izango du, eta hori administrazioak eska dezake eta errekurtsua jarri duen pertsonak ere bai.



Lehenengo baliabidea:

Aukeratu eremu semantiko bereko hitzak

Jakina da testuaren izaerari egokitutako eremua aukeratu behar dela.

Administrazio-egintza baten kontrako errekurtsoa **aurkezten** bada, **etetea** erabaki ahal izango da.

Aztertu behar da zer-nolako **kalteak** eragin ahal zaizkien **interes publikoari** eta **hirugarren batzuei**, eta **errekurtsio-jartzaileari** ere bai, eta **arrazoitu**. **Kalte** konponezin edo konpongaitzak ekar daitezkeela **ondorioztatzen** bada, **etetea** agindu ahal izango du, **ofizioz** eta **errekurtsio-jartzaileak eskatuta** ere bai.



Bigarren baliabidea:

Gehitu bitarteko erreferentzialak
irakurleari elementu komunikatibo bakoitza
identifikatzen laguntzeko

Helburu hori lortzeko, errepikapenak, sinonimoak, izenordeak edo parafrasiak erabili ohi ditugu; horrez gain, idazteko estilo aktiboa ("nork" eta "nori" argi uzten duena) ezinbestekoa da.

Pertsona batek administrazio-egintza baten kontrako errekurtsoa aurkezten badu, **organo eskudunak aurkaratutako egintzaren betearazpena** etetea erabaki ahal izango du.

Organo eskudunak aztertu behar du **eteteak** zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari eta hirugarren batzuei, eta errekurtso-jartzaileari ere bai, eta **azterketa hori** arrazoitu. **Egintza betearazteak** kalte konponezin edo konpongaitzak ekar ditzakeela ondorioztatzen badu, **egintzaren betearazpena** eteteko agindu ahal izango du, ofizioz eta errekurtso-jartzaileak eskatuta ere bai.



Hirugarren baliabidea:

Erabili konexioa bermatzeko testu-baliabideak

Kohesioa eta konexioa

Kohesioa estu lotuta dago testuaren ideien arteko konexioarekin.

Testu bat zenbat eta kohesionatuago egon, orduan eta antolatuago egongo dira haren ideiak.



Konexioari esker, bi funtzio hauek adierazten ditugu:

Bata, testuaren komunikazio-elementuek testuaren helburu komunikatiboari zer ekarpen egin nahi dioten, eta, bestea, elementu horien guztien artean zer lotura mota dauden.

Konexioak zerikusia du edukia transmititzeko baliatzen dugun estrategia komunikatiboarekin.

Ondorioz, kohesioa hobetzeko, konexioa bermatzen duten testu-baliabideak erabiltzea oso eraginkorra da; esaterako, testua antolatzeko eta ideien arteko loturak adierazteko balio duten testu-antolatzaileak edo juntagailuak.

Pertsona batek administrazio-egintza baten kontrako errekurtsua aurkezten badu, organo eskudunak aurkaratutako egintzaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du.

Aldez aurretik, organo eskudunak aztertu behar du etendurak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen, **batetik**, interes publikoari **edo** hirugarren batzuei, **eta**, **bestetik**, errekurtsu-jartzaileari; **horrez gain**, azterketa hori arrazoitu behar du. **Azkenik**, egintza betearazteak kalte konponezin edo konpongaitzak ekar ditzakeela ondorioztatzen badu, egintzaren betearazpena eteteko agindu ahal izango du, ofizioz **edo** errekurtsu-jartzaileak eskatuta.

Hasierako testua

Ekintza baten kontrako errekurtsua jartzen bada, eten ahal izango da.

Begiratu behar da zer-nolako minak eragin ahal zaizkigun guztioi edo beste batzuei, eta kontra egin duenari ere bai, eta zergatia argi adierazi. Min konponezin edo konpongaitzak ekar daitezkeela ikusten bada, ez egiteko agindu ahal izango du, eta hori administrazioak eska dezake eta errekurtsua jarri duen pertsonak ere bai.



Proposatutako testua

Pertsona batek administrazio-egintza baten kontrako errekurtsua aurkezten badu, organo eskudunak aurkaratutako egintzaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du.

Aldez aurretik, organo eskudunak aztertu behar du etendurak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen, batetik, interes publikoari edo hirugarren batzuei, eta, bestetik, errekurtsu-jartzaileari; horrez gain, azterketa hori arrazoitu behar du. Azkenik, egintza betearazteak kalte konponezin edo konpongaitzak ekar ditzakeela ondorioztatzen badu, egintzaren betearazpena eteteko agindu ahal izango du, ofizioz edo errekurtsu-jartzaileak eskatuta.

Zure testuen kohesioa
berrikusten duzu?

Kohesioa hobetzeko baliabiderik
erabiltzen al duzu?



Modu eraginkorrean
komunikatu nahi
baduzu,
hartu denbora-tarte bat
horretarako.

